

“LUIS MARIANO” NAZIOARTEKO XIV. KANTU LEHIAKETA

2018KO OINARRIAK

Irungo Udalak 2018ko uztaileko eratu du bi urtez behingo "LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO KANTU LEHIAKETAREN XIV. EDIZIOA.

Lehiaketaren xedea lirikaren munduan sartzeko baldintzak eta balio artistikoak dituzten abeslari gazteei aukera ematea da.

INFORMAZIO OROKORRA

1. IRUNgo Udalak bi urtez behin egiten den "LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO KANTU LEHIAKETAREN XIV. edizioa antolatu du; edizio hau Irunen egingo da 2018ko uztailearen 11tik 14ra, eta lirikaren munduan sartzeko baldintzak eta balio artistikoak dituzten abeslari gazteei aukera ematea du helburu.
2. "LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO XIV. KANTU LEHIAKETAn adin-tarte hauetako nazionalitate guztietako abeslariak har dezakete parte:
 - Emakume abeslariak: 18-32 urte, 2018an beteak
 - Gizon abeslariak: 20-35 urte, 2018an beteak
3. Lehiaketaren aurreko deialdietan lehen saria eskuratu dutenek ezin izango dute parte hartu.
4. Lehiaketan parte hartzean abeslariak bertako oinarriak onartzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta epaimahaiaren erabakiak eta haren egitekoari buruzko xedapenak ere.
5. Lehiaketarako izena emanez gero, abeslariak bermatuko dute lehiaketa-datetan ez dutela inolako betebeharrak profesionalik izango.
6. Lehiaketako fase guztietan piano-akonpainamendua izango da. Antolatzaileek akonpainamenduko bi piano-jotzaile jarriko dituzte parte-hartzaileen eskura.

IZEN-EMATEA

7. Izena emateko epea aldaezina da eta oinarri hauek argitara ematen diren egunean hasi eta **2018ko ekainaren 3 arte luzatuko da**. Lehiaketa honetan izena ematea online bidez egingo da soilik, horretarako lehiaketaren web orrian: www.irun.org/luismariano betez. Datuak betetzeaz gain, lehiakidearen argazki digitalizatu bat bidali beharko da.
8. 50,00 euroko kuota bat zehazten da izena emateko eskubidearen ordaingisa. Kopuru hori ondoko kontu-zenbakian sartuko da:

Bankua: Kutxabank
Titularra: Irungo Udala
IBAN ES19-2095-5045-8810-6240-9635
BIC BASKES2BXXX

Onartzen ez diren lehiakideei itzuli egingo zaie kopuru hori, izena emateko orrian zehazturiko kontu-zenbakian egingo den diru-sarreraren bitartez.

9. Izena emateko orria, banku-transferentziaren ziurtagiria edo posta-igorpena ziurtaturiko e-mailez bidaliko dira 2018ko ekainaren 4a baino lehen honako helbide honetara: cultura@irun.org
10. Izena eman duten lehiakideek bidali beharko dute hautatutako pogramako partituren ale bat (kantua-pianoa) **2018ko ekainaren 4a baino lehen**. Nolanahi ere, lehiakideak lehiaketara eramane beharko ditu hautatutako programako partituren (kantua-pianoa) bi kopia.
11. Antolakuntzak 2018ko ekainaren 9a baino lehen berretsiko du lehiaketan onartuak izan diren partaideen zerrenda.

INTERPRETATU BEHARREKO OBREN PROGRAMA

12. Lehiakide bakoitzak HAMAR (10) obrako programa bat aurkeztu beharko du, honela banatua:

A TALDEA: lau (4) obra, oratorio-kantata, lied, eta kontzertu-kantu moldekoak. Nahasian aurkez daitezke molde horietako obrak.

B TALDEA: sei (6) aria, opera, opereta edo zartzuelakoak (hiru moldeetako obrak nahasian aurkez daitezke, baina zartzuelakoak izanez gero, gehienez bi aria onartuko dira, eta operakoak gutxienez bi).

13. Proba guztietarako balio duen zozketa bakar bat egingo da eta hartan zehaztuko da emanaldien eta entseguen ordena. Zozketa 2018ko uztailaren 11n egingo da, 10:00etan, Irungo Amaia Kultur Zentroan.

Zozketa-une horretan bertan egon beharko dute, edo behar bezala ordezkaturik, lehiakide guztiek.

14. Lehiaketak hiru fase izango ditu:

- KANPORAKETAK:
2018ko uztailaren 11n, 19:00etan
2018ko uztailaren 12an, 19:00etan
- FINAL-ERDIAK:
2018ko uztailaren 13an, 19:00etan
- FINALA:
2018ko uztailaren 14an, 19:00etan

15. ENTSEGUAK-PROBAK: Hona hemen entseguak eta saio akustikoak egiteko aurreikusitako diren egunak eta orduak:

- Kanporaketa faseei begira
2018ko uztailearen 11n, 11:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara
2018ko uztailearen 12an, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 17:30era
- Final-erdiko faseari begira
2018ko uztailearen 13an, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 17:30era
- Finalerako faseari begira
2018ko uztailearen 14an, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 17:30era

Antolakuntzak alde zuzenetik jakinarazi gabe aldatu ahal izango ditu ordutegi horiek, baina ordutegiak aldatuz gero, emango du aldaketa horien berri.

16. Antolatzaileek piano-jotzaile laguntzaile bat jarriko dute parte-hartzaile bakoitzaren zerbitzura. Entsegu baterako eskubidea izango du kantari bakoitzak proba bakoitzaren aurretik. Lehiakideek, probetan beren piano-jotzailea eraman ahal izango dute, nahi izanez gero. Hala izatera, norberaren kargu joango dira piano-jotzaile laguntzaile horren bidaia eta ostatu-gastuak. Izena emateko orrian jakinarazi beharko dira xehetasun horiek.
17. Entseguak gehienbat AmaiaKZko entzunaretoetan eta, behar izanez gero, Udala Kontserbatoriokoan egingo dira. Entseguetarako Kontserbatorioa egokitu zaien lehiakideek Amaia KZn proba akustiko bat egin ahal izango dute emanaldia egin baino lehen. Beren piano-jotzailearekin datozen lehiakideek Kontserbatorioan entsegua egin ahal izango dute entsegu-ordutegi horretatik kanpo, baldin eta gela libre badaude.

LEHIAKETA PROGRAMA

18. Lehiakide bakoitzak honako obra hauek interpretatuko ditu:

KANPORAKETA-FASEA:

Berak aukeraturiko bi (2) obra interpretatuko ditu lehiakideak. A Taldekoa izango da lehena eta B Taldekoa bigarrena. Programa hau ez da 12 minutu baino luzeagoa izango.

Lehiakideek argi eta garbi adieraziko dute izena emateko orrian zeintzuk diren kanporaketan interpretatzeko hautatu dituzten bi obrak.

FINAL-ERDIA:

Epaimahaiak aukeraturiko bi (2) obra interpretatuko ditu lehiakideak, A Taldekoa izango da lehena eta B Taldekoa bigarrena.

FINALA:

Epaimahaiak hautatutako bi (2) obra interpretatuko ditu, B Taldekoak.

19. Ez da programa elebakarrik onartzen. Lehiakide guztiak gutxienez hiru hizkuntza desberdinetan obrak aukeratu dituzte.
20. Antolatzaileen esku dago behar adinako maila egiaztatzen ez duten lehiakideak lehiaketatik kanpo uztea eta musika-balio nahikorik ez daukaten programak baztertzea baita beren iritziz musika-balio nahikorik ez duten programak ere.
21. Era berean, epaimahaia ados balego, antolatzaileek probak egiteko sistema alda lezakete, bidezkoa dela iritziko baliote.

EPAIMAHAIA

22. Irungo Udalak izendatuko duen nazioarteko epaimahaian musikagintzan adituak egongo dira. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

JARDUERARAKO OINARRIAK

23. Lehiakideak berak erabakiko du kantu-jarduera bakoitzean interpretatuko duen programaren ordena.
24. Obrak jatorrizko hizkuntzan eta buruz kantatuko dira, "oratoriokoak" izan ezik, partituraz kantatu ahal izango baitira horiek. "Lieder" edota kontzertu kantuetan baizik ez dira onartuko tonalitate-transposizioak.
25. Epaimahaiak egoki irizten dionean eta hiru probetatik edozeinetan lehiakidearen jarduerari amaiera emateko edo jarduera eteteko eskubidea izango du. Oso kasu berezietan soilik baliatuko da prozedura hori. Gainera, jada abestu duen obra bat berriro ere interpretatzeko eska diezaioke epaimahaiak lehiakideari. Epaimahaiak errefusatu ahal izango du bere iritziz kalitate-nahikorik ez duen obra oro.
26. Kantu-jarduera guztiak jendaurrean egingo dira. Entzuleek emanaldi bakoitzaren hasieran emango diren instrukzioei erreparatuko diete.

HAUTATZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

27. Lehiakideak kalifikatzeko orduan, antolakuntza batzordeak onartutako eta epaimahaiaren arautegian zehaztutako printzipioak eta irizpideak aplikatuko dira.
28. Finalerako hautagaiak aukeratzean eta lehiaketaren azken emaitzak erabakitzean kontuan edukiko da lehiakideak lehiaketaren fase guztietan eman duen irudia, oro har. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

SARIAK

29. Sariak honako hauek izango dira:

1. SARIA6.000 euro

2. SARIA	4.500 euro
3. SARIA	3.000 euro
EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA GAZTE PROMESA HOBERENARI	2.000 euro
PUBLIKOAREN SARIA.....	2.000 euro

LUIS MARIANO SARIA: Luis Mariano Lirika Elkarateak emana. Saria kontratu bat izango da, elkarte horren opera-lanetakoren batean hurrengo bi denboralditako batean paper bat interpretatzeko.

30. Epaimahaia ez dago derrigortuta lehiaketako sari guztiak ematera eta eman gabe uzteko ahalmena du, baldin eta egokia iruditzen bazaio. Era berean, *ex aequo* sariak eman ditzake; hori gertatuko balitz sariaren diru-kopurua sarituen artean banatuko litzateke.
31. Finalera iristen diren eta arestian aipatutako sarietakoren bat lortzen ez duten lehiakide guztiak 200,00 euroko kontsolamendu-saria eta finalista diploma jasoko dituzte.
32. Finala egiten den gauean emango dira sariak. Sarituek berek jaso behar dituzte sariak.
33. Sarien diru-kopuruek zerga-atxikipena izango dute, indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera.

PARTE-HARTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK

34. Bidaia eta ostatu gastuak lehiakidearen kargura joango dira.

Lehiakide guztiak egunero 60 euroko laguntza jasoko dute lehiaketan dauden egun bakoitzeko.

OINARRI OSAGARRIAK

35. Lehiakide eta laguntzaile guztiak partehartzaile-txartel bana izango dute lehiaketako ekitaldi guztietara sarrera librean izan dezaten.
36. Probak irratiz nahiz telebistaz eskaini ahal izango dira, edo audioan eta bideoan grabatu ahal izango dira. Lehiakideek onartu egingo dute lehiaketa honetan parte hartzearen ondorioz telebistaz edo irratiz bidera litezkeen ikusentzunezko erreproduzio eta komunikazioen ordeko eskubideen zesioa.
37. Lehiaketan izena eman ondoren, lehiaketaren antolatzaileek Irungo eta Txingudi eskualdeko ostatuen inguruko informazioa emango diete interesatuei.
38. Epaimahaiak izango du erabakitzeko eskumena lehiaketaren uneraren batean gerta litekeen edozein gorabeheraren inguruan. Epaimahaia artean osatu gabe badago, zuzendaritza batzordeak hartuko du hartu beharreko erabakia.
39. Oinarri hauek kontuan hartzen ez dituen lehiakidea lehiaketatik kanpo geratu ahal izango da.
40. Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoak xedatzen duena betez, jakinarazten da biltzen diren datu guztiak, helburuaren arabera, Irungo Udaleko Informazio Sistematan txertatu ahalko dira.

Datu horien erabilera, bakar-bakarrik, udal eskuduntzetara mugatuko da, eta beste Herri Administrazioei edo hirugarrenei utzi edo komunikatu ahal izango zaizkie Legean aurreikusitako balizko kasuak ematen direnean. Interesatuak datuetara sartu, haiek ezabatu, zuzendu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren (HAZ) bitartez.

IRUNGO UDALAREN KULTUR ARLOAN egokituko da LUIS MARIANO NAZIOARTEKO XIII. KANTU LEHIAKETArako bulego iraunkorra.

Zernahi informaziotarako, jo ezazue helbide honetara:

**IRUNGO UDALA
KULTURA ETA KIROLAK SAILA
"LUIS MARIANO" NAZIOARTEKO XIV. KANTU LEHIAKETA
Tf.: 00 34 943 505 407
E-posta: cultura@irun.org
Web: www.irun.org/luismariano**